



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4º PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62 www.bmf-fvm.org
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

AKTA

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO EZ OHIZKO BATZARRA

Bilbon, 2021eko maiatzaren 8an, 13:00etan, lehen deialdian, BMFren Ohiko Batzarra eratu da, lehendakariak behar bezala deituta, Bizkaia-Miribilla pilotalekuan Bilboko Martin Barua kalea 27an.

Bileraren buru, Federazioaren lehendakaria den Victor Manuel Vivar Moreno aurkitzen da. Ana Belen Piqueras Sanchez idazkaria ez dago bileran, ezin izan da bertaratu, eta ondorioz Karmelo Ruiz de Alegria Martin mahaikideak ordezkatu du ekitaldi honetan. Zuzendaritza Batzordeko kideak ere bertan dira Jose Felix Fernandez De Ponga (lehendakariordea), Alberto Nieto Ibarrechebea (diruzaina), Ana Sesumaga Gonzalez, Garbiñe Okerantza Zulueta, Fernando Perez Ruiz eta Alberto Cardoso Corrales. Batzordeak gonbidatuta, EMFko lehendakaria den Zigor Egia eta EMFko Batzordeko beste kide batzuk ere bertan dira.

BERTARATUAK:

AKREDITAZIOA EDO ZUZENEKO ORDEZKARITZA DUTEN KLUBAK:

Deustuko Menditarrak, Baskonia M.T, Gantzabal M.T, GoikoMendi, Turista Barakaldo, Ganerantz M.T, Etorkizuna M.T, S.M. Encartaciones, GoiGain M.T, Egunsentia C.M., Lezama Gailur M.T, Munarrikolanda M.T., Cicloturistas de Euskadi C. La Rioja, Beraskola M.T, C.M. Aitzeder M.T., Tallu M. Kirol Kluba eta Untza M.T.

BMFren HAUTESKUNDE BATZORDEAK LEGEGINTZALDI HONETARAKO ESKATUTAKO ORDEZKARITZA OROKORRA AURKEZTU EZ DUTEN KLUBAK, BAINA BATZAR HONETAN UNEAN-UNEAN ORDEZKATUAK IZAN DIRENAK:

Leioa M.T., Gailurra M.T.

KIROLARIAK:

Victor Manuel Vivar, Garbiñe Okerantza Zulueta, Jose Felix Fernandez De Ponga, Fernando Perez Ruiz, Alberto Cardoso Corrales eta Alberto Nieto Ibarrechebea.

TEKNIKARIAK:

Ibon Beaskoetxea Bustamante eta Ana Sesumaga González.

EPAILEAK:

Mireia Trigueros Garrote.

Victorrek, BMFko lehendakari gisa, ongiatorria eman die bertaratutakoei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik. Azaltzen duenez, Batzar hau bideokonferentzia bidez egiteko baimena eskatu zaio Aldundiari,

baina gaurko egunez oraindik ez da erantzunik jaso. Azaldu du legez beharrezkoa dela Batzar hau aurrez aurre egitea, eta hau horrela, COVIDaren aurkako prebentzio-neurri egokiak hartu direla bertan hartu direla.

Jarduneko idazkariak bertaratutakoen zenbaketaren berri eman du, honela geratu delarik: boto ordezkariak 19 klub (50 boto), kirolarien 6 ordezkari (6 boto), 2 teknikari eta epaile bat (3 boto) bertaratu dira, hau horrela 28 kide bertaratu dira eta 59 ordezkariak-boto.

Behin Batzarra formalki eratuta, kideren batek bilera utziko balu, bere botoa abstentzio-tekniko gisa zenbatuko da.

EZOHIKO BATZARRAREN ERAKETA:

Aurreko datuak ikusita, Batzarra balio osoz eratzat ematen du lehendakariak, Federazioaren Estatutuaren 20. artikuluan jasotakoa jarraituz.

Gogorarazten da, BMFren azken Batzarretan erabilitako eskema berari jarraituz, ordezkari ofizialen laguntzaile gisa etorri diren pertsonak (klub bakoitzeko bat) bilerara sartzeari baimendu dela, argi utziz horiek ez dutela boto-eskubiderik.

BMFren Estatutuaren 19. artikulua jasotzen duenaren arabera, ez denez bestelako gairik sartzeko eskaerarik jaso, deialdiko gai-zerrendan jasotakoei heldu zaie.

LEHEN PUNTUA: 2020ko EKAINAK 25eko EZOHIKO BATZARREKO AKTAREN ONARPENA.

Eragozpenik gabe, aho batez onartu da.

BIGARREN PUNTUA: ESTATUTUEN 3. ARTIKULUAREN ALDAKETA.

Estatutuaren 3. artikulua honakoa jasotzen du:

"BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOAK Bilbon du helbidea, Iparragirre kalea 46, 59 solairua, 1. atea, eta Batzar Nagusiak horrela erabakitzen badu, bere lurralde-eremuaren barruan lekuz aldatu ahal izango da."

Horrela jasota geratzen da:

"BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOAK Bilbon du helbidea, Martin Barua Picaza kalea 27, 4 solairua, posta kodea 48003, eta Batzar Nagusiak horrela erabakitzen badu, bere lurralde-eremuaren barruan lekuz aldatu ahal izango da."

Aho batez onartzen da

HIRUGARREN PUNTUA: ESTATUTUEN 9. ARTIKULUAREN ALDAKETA.

Artikulu honek barne hartzen ditu Bizkaiko Mendizale Federazioaren estatutuaren jasotako mendiko jarduerak. Artikulu horri martxa nordikoaren jarduera gehitu zaio, jarduera hori jada sartuta baitago Fedmen eta Euskal Mendizale Federazioaren estatutuaren.

Paragrafo hauek sartzea proposatzen da::

"m) Martxa nordikoa."

"n) Euskal Mendizale Federazioan eta/edo Eusko Jaurlaritzak emandako dekretuan jasota dauden oraingo eta etorkizuneko Mendizaletasunaren kiroleko diziplina guztiak sartuko dira."

Aho batez onartzen da

LAUGARREN PUNTUA: ESTATUTEN 12. ARTIKULUAREN ALDAKETA

Honako hau adierazten du h) atalean:

"H) Klub berriak onartzea. Klub berriak onartzeko arauak onartzea. "

"Klub berriak onartzea" dioen lehenengo puntuko paragrafoa kentzea proposatzen da, gai horri buruz Kirol Justiziako Euskal Batzordeak kontrako irizpena eman baitu. Honela geratuko delarik:

"h) Klub berriak onartzeko arauak onartzea."

Aho batez onartzen da.

BOSGARREN PUNTUA: ESTATUTUEN 62. ARTIKULUAREN ALDAKETA

Estatutuen 62. artikulua honela dio:

"1. BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOAREN bizitza ekonomikoa Ohiko Batzar Nagusian onartzen den aurrekontuari egokituko zaio. Zuzendaritza Batzordeak urtero aurkeztuko dio aurrekontu-proiektua Batzar Nagusiari onar dezan.

2. Aurrekontu-proiektuak parekatuak eta orekatuak izango dira. Lehendakariari dagokio gastuak onartzea eta ordainketak agintzea, ofizioz edo Zuzendaritza Batzordeko kideek proposatuta, bakoitzak bere eskumenen barruan.

3. Betearazpena diruzainari dagokio.

4. Likidatutako aurrekontuen ekitaldiko azken soberakina diru-sarrera gisa agertuko da hurrengo aurrekontuan."

4. atala kentzea proposatzen da. Honela dio:

"4. Likidatutako aurrekontuen ekitaldiko azken soberakina diru-sarrera gisa agertuko da hurrengo aurrekontuan", kontabilitate-araudiarekin bat ez datorrelako.

Aho batez onartzen da.

SEIGARREN PUNTUA: ESTATUTUEN 63. ARTIKULUAREN ALDAKETA

Estatutuen 63. artikulua honako hau adierazten du:

"1. Zuzendaritza Batzordeak Ohiko Batzar Nagusian aurkeztuko du balantzea. Balantzean, nolana ere, dagokion ekitaldiko benetako egoera adierazi beharko da. Urte ekonomikoa urtarilaren lehen hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

2. Funtsak banku-establezimenduan edo aurrezki-kutxan gordailutuko dira, BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOAREN izenean dagoen kontu korrontean.

3. Kutxan gorde ahal izango dira gastu txikiei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen diren zenbatekoak, presidenteak bere erabakiz ezarritako mugaren barruan."

2. paragrafoa aldatzea proposatzen da, eta honela geratzen delarik:

2. Funtsak BIZKAIKO MENDI FEDERAZIOAREN izenean dauden finantza-erakundeetan irekitako kontuetan gordailutuko dira..

Aho batez onartzen da.

ZAZPIGARREN PUNTUA: 64. ETA 33. ARTIKULUEN ALDAKETA PARTZIALA:

Estatutuen 64. artikulua honako hau adierazten du:

"Kontu korrante horien kargura funtsak erabiltzeko lehendakariaren edo eskuordetutako pertsonaren eta diruzainaren sinadurarekin baimendu beharko dira. 33. artikuluko 2. atalean jasotakoa gertatzen denean salbu."

Amaiera zuzentzea proposatzen da: 33. artikuluko 2. apartatua dioen lekuan, "34. artikuluko 2. apartatua" jartzea.

(Diruzaina) jartzen ondoren honakoa gehitzea proposatzen da, batzar orokorrak onartzen dituen baldintzetan.

Azkenean, honela geratzen delarik:

"Kontu korrante horien kargura funtsak erabiltzeko lehendakariaren edo eskuordetutako pertsonaren eta diruzainaren sinadurarekin baimendu beharko dira, Batzar Nagusiak onartzen dituen baldintzetan. 34. artikuluko 2. atalean jasotakoa gertatzen denean salbu."

Aho batez onartzen da.

ZORTZIGARREN PUNTUA: KREDITU TXARTELAK KONTRATATZEKO GAITASUNA EMATEKO TESTUA ONARTZEA.

Batzarrari Federazioko lehendakariari eta diruzainari kontratazioa egiteko ahalordea eta baimena ematea proposatzen zaio, hurrengo baldintzetan:

"BMFren Estatutuen 64. artikuluan funtsen erabilerarekin lotuta jasotakoa garatze aldera, Batzar Nagusiak erabaki du federazioaren kontura ordainketak egiteko kreditu-txartelak kontratatzeke baimena ematea Federazioko lehendakariari eta diruzainari ahalordea, eta hilean gehienez 1.000 euroko mugarekin SOLIDARIOKI erabiltzeko baimena ematea.

Biek ala biek, ADOSTASUNEZ jarduten jarraituko dute, 1.000 eurotik gorako zenbatekoetarako aurreko ahalmen bereberekin jarduteko."

Aho batez onartzen da.

BEDERATZIGARREN PUNTUA: FUNTSAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK.

2016ko martxoaren 17an egindako batzarraren aktan, diruzaintzari buruzko azken paragrafoan, honako hau onartu zen:

"Berariazko erabilera-konpromisoa duten jardueretarako funtsak eratzea eta/edo mantentzea."

Aldaketa hau proposatzen dugu:

Zuzendaritza Batzordeak funts baten xedea aldatzea proposatu ahal izango du, eta Batzarrak berretsi beharko du.

HAMARGARREN PUNTUA: GALDE-ESKEAK.

Batzarrari lotutako galderarik ez dagoenez, eta aztertzeko beste gairik ere ez dagoenez, Federazioko lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, eta bertaratu diren guztiei parte hartzeagatik eskerrak emanez.



A handwritten signature in blue ink, reading 'Ruiz de Alegria Martin'.

Sin.: Karmelo Ruiz de Alegria Martín
BMFren Jarduneko Idazkaria

A handwritten signature in blue ink, reading 'Victor Manuel Vivar Moreno'.

Sin.: Víctor Manuel Vivar Moreno
BMFren Lehendakaria